



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak *Opereta, una noche en Viena* kontzertua eskainiko du, Martina Serafin sopranoaren eta Andreas Schager tenorraren eskutik

- Serafin eta Schager nazioarteko bi ahots handi dira, ohikoak Vienako Operan eta lirikaren Europako etxe onenetan, eta urriaren 16an, igandean, ikusi ahal izango ditugu, 19:00etatik aurrera.
- Lidia Baich biolinista eta Rubén Fdez. Aguirre pianista dira bakarlariekin batera, eta besteak beste, Strauss edo Zeller jenioen obrak joko dituzten musikari bikainak.

Bilbo, 2022ko urriaren 11. – Arriaga Antzokiak *Opereta, una noche en Viena* antolatu eta ekoizten du: datorren igandean, urriaren 16an, arratsaldeko 19:00etan ikusi ahal izango dugun kontzertu oso berezia da.

Nazioarteko eszena lirikoko bi bakarleri handi, **Martina Serafin** sopranoa eta **Andreas Schager** tenorra lehen aldiz izango ditugu Arriagan. Besteak beste, **Johann Strauss, Fritz Kreisler, Imre Kálmán eta Carl Zeller** jenio handien konposizioak interpretatuko dituzte Antzokian aurkeztuko den programan; azken finean, opereta lan bikainak nazioarteko lehen mailako bi abeslariaren ahotsetan dastatzeko aukera ematen duen musika-hitzordu bat da izango duguna. Martina Serafin musika lirikoaren arloko pertsona ospetsuenetako da bere herrialdean, Austrian. Artista honek familiaren ondarea jaso zuen (aita eta ama ere abeslariak izan ziren) eta maila artistiko izugarri handiak lortu ditu, mundu osoan aintzatespenak lortuz Tosca edo Lady MacBethen interpretazioengatik edo, besteak beste, Strauss (igandean egiaztatuko dugu), Wagner edo Pucciniren errepertorioko emanaldiengatik.

Bestalde, Andreas Schager tenor austriarra da, bera ere ospe handikoa nazioartean, Wagner edo Beethovenen obretan egindako interpretazio bikainengatik ezaguna, eta Londresen, Madrilan edo Milanen kritikaren txaloak eta kritikaren goraipamenak jaso dituena, “edertasun eta kolore handiko” ahotsa duen abeslaria baita.

Eta hara zer bi musikari!

Zaleek bi ahots handirekin gozatzeaz gain, bi musikari handiren birtuosismoarekin eta sentsibilitatearekin gozatuko dute. Zalantzarik gabe, musika-akonpainamendua ahotsak bezain aipagarria da Arriaga Antzokiak antolatutako Opereta kontzertu honetan. Izan ere, pianoan **Rubén Fdez. Aguirre** egongo da, izen handiko hainbat eta hainbat ahotsen ohiko pianista, Austriako opereta eta musika ederki ezagutzen dituen, Vienan egin baitzituen ikasketak hiru urtez. Gainera, herrialde harekin zuen lotura profesionalak jauzi kualitatibo bat eman zuen joan den denboraldian debuta egin

zuenean Vienako Staatsoper-ean pianista laguntzaile gisa, Lisette Oropesa sopranoaren errezitalean.

Aukera honetarako hautatutako taldea osatzeko, **Lidia Baich** Austriako biolinista bikaina dugu, birtuosismo eta moldakortasun handiko instrumentista, bakarka zein orkestrekin jotzen duena, ganbera-taldeekin, opera-bakarlariekin, eta oso bestelako proiektuetarako eskaerak ere jasotzen dituena, hala nola Deep Purple rock bandarekin edo Staatsballett Berlineko ekoizpenetan agerraldiak egiteko.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 19 eta 36 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus